

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Ahaldun Nagusia**

Bizkaiko Foru Aldundiaren 128/2019 FORU DEKRETUA, irailaren 3koa. Honen bidez, aldatu egiten da uztailaren 1eko 101/2019 Foru Dekretua, Bizkaiko Foru Aldundiaren sailak zein haien jardun-eremu eta eginkizunak ezartzen dituen.

Ahaldun nagusiaren uztailaren 1eko 101/2019 Foru Dekretuaren bidez (Bizkaiko Foru Aldundiak uztailaren 2ko ezohiko kontseiluan baliozkotu zuen dekretu hori), Foru Aldundiaren sailak zein haien jardun-eremu eta eginkizunak ezartzen dira.

Egiaztatu da desegokiak direla Ahaldun Nagusiaren Kabineterako eta Ekonomia Sustatzeko Sailerako proposatutako egitura berriak, kontuan hartuta Foru Aldundiaren eginkizunak eta helburu programatikoen lorpena; beraz, beharrezkoa da bien zuzendaritza nagusien izenak aldatzea.

Horrez gainera, akats bat ikusi da Sestao Bai, S.A. merkataritzako foru-sozietatearen atxikipenean; izan ere, Ekonomia Sustatzeko Sailari barik, Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailari atxiki behar zaio.

Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundearen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 15.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio antolaketako barne-erregelamenduak onartzea.

Hori dela bide, ahaldun nagusiak proposatuta, eta Foru Aldundiak 2019ko irailaren 3ko bileran eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengo artikulua

Bizkaiko Foru Aldundiaren sailak zein haien jardun-eremu eta eginkizunak ezartzen dituen ahaldun nagusiaren uztailaren 1eko 101/2019 Foru Dekretua aldatzea, foru-dekretu honen eranskinean ezarritakoaren arabera. Eranskin hori foru-dekretuaren xedapen-zatiari erantsi zaio, ondorio guztietarako.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Sailen, Ahaldun Nagusiaren Kabinetearen eta Estrategia Digital eta Korporatiboaren Kabinetearen egitura organikoari buruzko foru-dekretuak onetsi artean, mantendu egingo dira gaur egungo zuzendaritza, zuzendariordetza, zerbitzu eta atalen eginkizunak, bien bitartean egiten diren izendapenak gorabehera.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabeturik geratuko dira foru-dekretu honen aurka dauden xedapen guztiak.

AZKEN XEDAPENA

Foru-dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean sartuko da indarrean.

Bilbon, 2019ko irailaren 3an.

Ahaldun Nagusia,
UNAI REMENTERIA MAIZ

**ERANSKINA / ANEXO**

Ahaldun nagusiaren uztailaren 1eko 101/2019 Foru Dekretua aldatzea. Dekretu horren bitartez, Bizkaiko Foru Aldundiaren Sailak zein haien jardun-eremu eta eginkizunak ezartzen dira.

Lehenengoa.—Lehenengo artikuluko 6. zenbakia aldatzea

Honela geratzen da idatzita lehenengo artikuluko 6. zenbakia:

«6. Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Saila.

- a) Lurralde Garapenerako Zuzendaritza Nagusia.
- b) Berrikuntzarako eta Bideen Kudeaketarako Zuzendaritza Nagusia.

Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailari merkataritzako foru-sozietate hauek atxikiko zaizkio: Azpiegiturak, S.A.U., Bitarteko Propioa; Interbiak, S.A., Bitarteko Propioa, eta Sestao Bai, S.A.»

Bigarrena.—Lehenengo artikuluko 8. zenbakia aldatzea

Honela geratzen da idatzita lehenengo artikuluko 8. zenbakia:

«8. Ekonomia Sustatzeko Saila.

- a) Ekintzailatza eta Enpresen Lehiakortasuna Bultzatzeko Zuzendaritza Nagusia.
- b) Lurralde Lehiakortasuna eta Turismoa Bultzatzeko Zuzendaritza Nagusia.

Ekonomia Sustatzeko Sailari merkataritzako foru-sozietate hauek atxikiko zaizkio: BEAZ, S.A., Bitarteko Propioa; Seed Capital Bizkaia, S.A.; Seed Capital Bizkaia Mikro, S.A., eta Crowdfunding Bizkaia PFP, S.L.».

Hirugarrena.—Bigarren artikulua aldatzea

Honela geratzen da idatzita bigarren artikulua:

«Ahaldun Nagusiaren Kabinetea mantentzen da, zeina zuzenean ahaldun nagusiaren menpe egongo baita. Haren eginkizunak erregelamenduz garatuko dira; Ahaldun Nagusiaren Kabineteko burua titularra izango da, eta jardun-eremu nagusi hauek koordinatuko ditu:

- a) Komunikaziorako Zuzendaritza Nagusia.
- b) Bizkaia Erakargune Bihurtzeko Zuzendaritza Nagusia.
- c) Kabinetearen Koordinaziorako Zuzendaritza Nagusia.»